

ÕÑATIKO ARANTZAZUN, GOGARTETXEAN
Euskaltzaindiak frantziskotarrei egindako omenaldian

2002-VII-18

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Aita Guardianoa agurgarria,
Euskaltzain kideok,
Jaun-Andereak.
Arratsalde on.

Orain bertan oroitarazi duzu nola, Euskaltzaindiaren bilkura batetara joaiteko, bazoan Aita Villasante Aita Guardianarengana baimenaren eska-
tzera. Gaur, nik ere, Aita Villasantek bezala, baimena galdegiten dizut min-
tatzeko.

Bostehun urte, milenario erdia, ospatzen duzue aurten Arantzazun. Eus-
kaltzaindia zuekin bat eginik, hemen dago milenario erdi horren ohortzeko.
Alabaina etxe hau, zuen etxea, gure etxea izana da ere, bereziki garai latz ba-
tzuctan. Arantzazu izan da aterbe, egiazko aterbe, Euskaltzaindiarentzat. He-
men aurkitu du behar zen kokalekua biltzarren egiteko azken berrogeita ha-
mar urteetan. Nor ez da oroit 1968ko Biltzar Nagusi famatuaz Euskaltzaindiak
erabaki zuelarik bide berri bat urratuko zuela, bihurgune bat hartuz, euskara
batuaren beharra ikusten zuela. Geroztik ere hemen bildu gara, garrantzi haun-
diko erabakiak hartuz, adibidez aditz laguntzaile batuarena.

Nola ez aitor Arantzazu izan dela aterbe eta gerizalekua, hemen, hiri
haundietako azantz eta zarata guzietatik urrun, aurkitu baitugu ixiltasuna, lan-
duz euskararen alorrean ildo nagusiak, nozitzuz ideia berriak euskararen gero-
aren segurtatzeko. Aterbe, gerizatoki ez bakarrik Euskaltzaindiarentzat baina
denontzat, euskaldunentzat, izan diten fededun ala ez, denek ezagutzen dute-
la Euskal Herriko Montserrat izan dela eta dela Arantzazu. Egia erran, Aran-
tzazu Montserrat bezala mendi mazela batean kokatua da eta gogora heldu zait
orain Unamuno-k olerki batean idatzi zuena Gaztelako «meseta» aipatuz Sa-
lamankan bizi zela:

«Aire de cumbres es el que se respira aquí en tus páramos».

Bai, aire sanoa hemen daukagu ere, «aire de cumbres» delako hori, mendietako aire pizgarria, gogo-bihotzak zabaltzen dituen.

Ez nituzke, horiek aipatzean, ahantzi nahi hemengo fraileak. Lehena izan da Fray Juan de Zumarraga, euskalduna, euskaraz idazten zuela bere familia-ri. Oroit naiz Mexikon duela 20-22 urte, hango katedraleko kriptan irakurri nuela Goi apezpikuen zerrenda, zerrendaburu zela Fray Juan de Zumarraga eta haren ondotik heldu zirela beste sei deitura, denak euskaldunak. Hori ere hemendik zenbait urteren buruan bostehun urte iraganak izanen dira.

Bost menderen jauzia egin dezagun, areto honetan ikusten baitituz, hemengo zenbait laguntzen gaituztenak beti leialki, Intxausti, Torrealdei, Azurmendi edo Jose Antonio Aduriz. Badakit atzo bezala bihar ere lagunduko gaituztela, baitakite zer lan sakonetan sartua den Euskaltzaindia.

Gogoan atxik ditzagun mundu honetatik joanak diren bertze euskaltzain urgazle batzu. Zuk bezala, Aita Guardianoa, aipatuko dut Imanol Berriatua. Denok ezagutu dugu Aita Imanol Berriatua eta badakigu nola ederki jokatu den euskara batuaren alde, zinez lan haundi eta beharrezkoetan murgildu dela garai batean. Azken agurra egin diot Jerusalemen. Duela zenbait urte kongresu batean izan gara Urdangarín jauna, Hizkuntza Politikako funtzionarioa, eta ni Jerusalemera eta hango frantziskotarren komentuan Imanol Berriatuaren hibliaren aitzinean otoitz egin.

Gogoan ditut ere ezagutu ditudan bi Frantziskotar, biak olerkariak. Manex Erdozainzi Donapaleun bizi zen, bestea Bitoriano Gandiaga hemen, Arantzazun, biok euskal literaturaren langile finak, bakoitzak bere olerkietan erakusten zuela bere nortasuna, bihotzaren zabaltasuna, euskararentzat zeukan amodioa.

Azkenik, zuk bezala Aita, Guardianoa, aipatuko dut Aita Luis Villasante. Sartu zen euskaltzain oso gisa 1951n eta, beraz, 49 urte iragan ditu Euskaltzaindian. Bere baitan zaukan euskara batuaren beharra. Aspaldian hasia baitzuen Axularren *Geroaren* azterketa, ikusiz ere *Geroa* zela euskal prosaren erdua, Federico Krutwig bere adiskidea segituz pentsatu zuen lapurtera izan zitekeela euskara literarioaren oinarria. Hortakotz bere sarrera mintzaldia idatzi zuen lapurtera klasikoan, Federico Krutwig-ek erantzuten ziola euskalki berean. Ez da harritzekoa, beraz, ikustea Aita Villasante euskara batuaren alde hemen bertan, 1968an, apailatua izan zen kongresuan.

Bi urteren buruan Euskaltzainburu izendatua izan zen, kargua atxiki duen larrik 18 urtez (1970-1988). Urte latzak izan dira Aita Villasanterentzat non nahitik heldu baitziren kritikak, eta ez bakarrik kritikak, baina laidoak eta irainak, batzutan pertsonalak. Horiek guztiak jasan ditu ixiltasunean, umiltasunak manatzen zion bezala, sekulan erantzun gabe. Denbora berean, Koldo Mitxelena zuela gidari lan egin du beti ixilki. Pedagogo on gisa, idatzi ditu liburuak euskara batuari buruz, aztertuz ortografia, morfologia, morfosintaxia, bere ja-

kintasuna zabalduz euskara batuaren onerako. Euskaltzainburu zelarik aldatu da osoki –José Luis Lizundiaren laguntzarekin– Euskaltzaindiaren egitura eta laneko manera, batzordeak sortuz, biltzar nagusiak bultzatuz. Orduan asmatu dira Euskaltzaindiak orain segitzen dituen lan sakonak, Hiztegegintzan, Gramatikan, Dialektologian, Onomastikan, Literaturan. Hemezortzi urtez haren ondoan egona naiz euskaltzainburuorde gisa eta badakit nola jokatu den beti, konpon-bideak bilatuz, xumeki baina kartsuki baketsu erakutsiz bere burua. Euskaltzaindian denok badakigu zer izan den Aita Villasanteren eragina.

Azkenean, Euskal Herri osoak eskaini dio merezi zuena. Oroit naiz zenbat eta zenbat jende bildu zen haren ehorzketetan; basilika bete-betea zazpi probintzietarik etorritako jendeez, batzu urrundik erakutsi nahiz beren atxikimendua, aitortuz Aita Villasanterentzat zeukaten zorra.

Gu ere zordun gaude Arantzazurekin. Behar zelarik eman digu aterbe, eman digu ere Aita Villasanterekin euskaltzainburu bat paregabekoa, bere parte hartzen du orain ere gure lanetan bere kide gazteei esker. Beraz, hain zuzen bostehun urteak ospatzen direlarik Euskaltzaindiaren izenean eskaintzen dizkitzut, Aita Guardianoa, eskerrik beroenak zure ongi etorriaren gatik eta bai ere, bihotz-bihotzez orain artio Arantzazun guretzat egin duena gatik.